

ПРАВДА ЕТА ИЗВЕСТИЯ SOBIETAR EGUNKARIAK

**aro baten amaieraren lekuko kazeta-diseinuaren
aldaketa 91ko abuztuko estatu-kolpe ahaleginean.**

Jose Inazio Basterretxea Polo

Prensa sovietarrak aldaketa handiak eta garrantzitsuak bizi izan ditu 1985.ez gero, Mikhail Gorbaxoven Perestroika (Eraberritzea) eta Glasnost (Gardentasuna) martxan jarritz gero; baina horiek baino handiago, garrantzitsiago eta bizkorragoak izan dira 1991.eko udako Estatu-kolpe ahaleginaren porrotaz gerokoak. Azken urte biotako aldaketa politikoek aurreko epean jaiotzen ari ziren eraberritzeak garatu dituzte.

Eskuarteetan daukazu lan honek egunkari sobietar biren aldaketetara hurbildu gura zaitu. Eraberriketak maila askotan eman dira prentsa barruan, baita gutxien espero zen arloetan ere, diseinuarenetan alegia. Lan honek Izvestia eta Pravdaren diseinu aldaketa aztertzen du.

1991.eko Estatu-kolpe ahaleginak ez du ondare bera utzi egunkari biotan. Estatu-kolpearen porrota PRAVDAtik haize indartsu bolada baten antzera igaro da teilatuak altxa eta etxebarruak irauli, astindu eta kaleratuz. IZVESTIAtik, ostera, haize bolada hori etxe barruko gelak aireraturaz igaro da, kasik hautsa harrotu barik. Ondorioz PRAVDa bere historiaren unerik gordinenak bizi ditu. IZVESTIAk, aldiz, atek zabaldu eta musika berriak entzuten dihardu.

Mundu sobietarrak 75 urte bete ditu, baina betetzeko zeuzkan guztiak bete dituela esan daiteke. 1917. urtean Errusiak agur esan zion Lege Zaharrari, monarkiari, eta 1992.ean agur esan dio Lege Sobietarrari; zikloa, beraz, bete egin da, eta udaldi honetan, abuztuko azken egunetan, 91.eko estatu-kolpe ahaleginaren bigarren urteurrena izango da.

1917. urtean Leninen esku boltxebikeek Petrograden boterea hartu zutenean aro berri bat zabaldu zen munduan. Iraultza Sozialista posiblea zela frogatu zuten, hartara XIX. mendean zehar formulazio desberdinak izan zituen Sozialismoak bazuen aberria, bazuen probaleku bat: Errusiako inperio ohia. Urteak joan urteak etorri, Inperio Sobietarrak Tsarren Inperioa ordezkatu zuen, Tsarren Inperioaren mugarik gehienak eskuratu, eta gure egunetara arte 15 Errepublika Sozialista Sobietarrek bete dute Romanov familia gobernatu zuten lurraldea, Munduaren seirena.

Iraultza boltxebikeak gauza berri asko ekarri zituen. Baina batez ere, mundua ulertzeko modu berria ekarri zuen, eta modu berriok politikan, ekonomian, gizarte-antolakuntzan, kulturaren, literaturan, artean, komunikabideetan... ezarri eta esperimentatu ziren. Politikan sistema sobietarra, Ekonomian garapen planifikatua, gizarte-antolakuntza sozializazioa, Kulturaren proletarizazioa, Komunikabideetan informazio militantea...

Mundu berriaren eraikuntza denek hartu behar zuten parte: politikariek, ekonomiariek, kulturgileek, artistek,

kazetariek... Ideologizazioak gizartearen arlo guztiak hartu zituen, eta ideologizazioak, mundu berri baten oinarriak ezarri nahi zituen horrek, bere arma propioak hartu zituen masak kontzientziatzeko, masetara izpiritu iraultzailea helerazteko, masak iraultzaren bideak jorra zituzan. Ideologizazio horretan, besteek beste, egunkariek berebiziko errola bete zuten; eskuartean dauzkagun hauek ez ziren lan horretan atzean geratu.

ПРАВДА eta ИЗВЕСТИЯ egunkari biak presentzia handi-handikoak izan dira 75 urtez Europaren Mendebaldean eta Asiako zati handi batean hedaturiko Sobietar Batasunean. Presentzia horrek bere horretan dirau gaur egun ere, ez noski lehenago batean legez, baina egunkarion pisu espezifikoak espezifiko segitzen du izaten Sobietar Batasuna izan zen eremu horretako herri eta estatuetan. Munduaren seirenean pisu espezifiko handikoa dena, mundu osoan eragina duen zerbait da, edo hala izan beharko luke seiren hori gure etxe ondoko baratzeak ez bada ere.

Lehen Mundu-Gerra, Iraultza Boltxebikea, Errealismo Sozialista, Desestalinizazioa, Perestroika eta Erreforma sobietar-errusiarrak orri asko bete dituzte esku artean dauzkagun egunkari biotan. Mende oso baten lekukoak dira Izvestia eta Pravda.

Azterketa edo analisi hau egunkari hauen aldi oso konkretu bati dagokio: 1991. urteko estatu-kolpe ahaleginaren ingurukoari hain zuzen ere. Horretarako hiru hilabete aztertu dira: esan urteko Uztaila, Abuztua eta Iraila.

Hiru hilabete hauek ez dute mundua konmozionatu, baina mundua konmozionatu zuen Iraultzaren ahotsa izan diren komunikabideotan aldaketa ugari eragin dituzte. Hauek bezalako historia luzea daukaten egunkariaren kasuan epeak laburregia eman dezake hasiera batean, baina egunkari biok ezagutu dituzten aldaketek ez dute kalifikatibo hori merezi. Egia esan, aldaketak egunkarietan ez ezik, gizarte osoan izan dira handiak, eta gure egunkariok aldaketa handi horien lekuko ditugu.

Egunkariok inperio baten erorketaren lekuko izan dira, inperio sobietarraren desagertzearen testigu dira lehen orrialdeetatik bertatik. Egunkarion diseinua bera ere, une honetan guri interesatzen zaigun hori, gainbehera horren lekuko aparta da. Beste baterako gera bitez aldaketa politiko eta editorialak, oraingoan egunkariaren itxurari begiratuko diogu aldaketaz jabetzeko; dena den, ez beza inork pentsa itxurazko aldaketak bere baitan aldaketa politikoaren hazia ez daramanik, alderantziz baino; alegia, aldaketa editorial eta politikoen ondorio besterik ez da diseinu-aldaketa.

Gehienetan gertatu ohi denaren kontrara, ez dira arrazoi ekonomikoak izan egunkari biotako berdiseinua ekarri dutenak. Politikak, estatu-kolpe batek itxuraldatu eta eraberi baititu egunkariok; ez biak zentzu berean aldatu, baina bai biak modu ikusgarritz.

Diseinu-aldeketetan **Izvestiako** kazetariak hartu zuten aurrea. ГКЧП - Junta Militarraren taldeak, estatu-kolpe ahaleginaren egoera berezi hartarako

sortutako agintari-taldeak, tankeak kalera atera eta berehala ekin zioten egunkari honetakoek mantxeta aldatzeari, etxebarruan etxeanpoko estatu-kolpearen aurkako estatu-kolpe domestikoa jota egunkariaren jabegoa Parlamentuko kontrol-batzordetik atera eta heuren poltsikoetara sartuz. Izvestiako kolektiboak ez zuen dudarik eduki: behin tankeak kalera aterata, behin ГКЧП -Junta Militarrak komunikabide batzuk ixteko agindua emanda, kontraerasoari ekin zioten egunkariak jabetuz. Badirudi zera esan zutela: Zuek tankeak kalera? Egunkaria guretzat!

Apropiazio-prozesua zuhurra izan zen, zeren Parlamentuaren inmobilitateaz baliatuz egin baitzen. Baina Parlamentuak errekurrituta dauka, nola da posible -diote- Parlamentuaren egunkaria zena orain Parlamentutik at dabilen egunkaria izatea Parlamentuak berak horretaz erabakirik hartu ez baldin badu? Prozesuak interesgarria dirudi, zeren espropiazioak gutxitan egiten baitira behetik gora, eta gutxiago Botere Legeztatzailea den Parlamentu baten kontra. Baina Moskun posible izan da Errusiako agintari berriek, Estatu-Kolpearen porrotaren ostean indartu egin direnek, begi onez ikusi baitute kolektibo honen joera.

Izvestiaren diseinu berria gehien bat mantxetaren esku ikusi dugu Estatu-Kolpearen garaietan. Estatu-kolpe bitarteko egunetan, egunak joan ahala, mantxetak bere sinbologia komunista galtzen zuen, egun bakoitzean ikur komunistaren bat gehiago galtzen zuelarik. Gerora etorri da egunkariaren

berrantolaketa, 1992. urtean zehar eta aurten sendotu dira 91.eko abuztuan hasitako alda-keta haiek.

ГКЧП golpisten taldeak errakuntza politiko eta militar asko eduki zituen abuztu hartan, errakuntza-sorta luze honetan bat komunikabideak eta informazioa kontrolatu ez izana. Komunikabide batzuk derrigorrez, dekretuz itxi zituzten, baina lanean ihardun zutenak golpisten kontroletik kanpo aritu ziren. Izvestia da horren lekuko, baina ez bakarra.

Pravdaren kasua guztiz bestelakoa izan da. Pravdak garai batean zeukan pisua galdu egin du, eta dena hasi zen abuztuko egun haietan. Pravda Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren Batzorde Eragilearen ahotsa, organoa zen, eta Alderdi Komunistak ez zuen jakin zer egin estatu-kolpearen egunetan, ez zuten heuren tokia aurkitu: Alderdi Komunista ez zen golpista, baina golpistak Alderdi Komunisteko kideak ziren, ez hori bakarrik, Estatu Komunisteko agintariak. Latza egoera orduan, eta latza gaur egun.

Pravdaren aldetak estatu-kolpe ahaleginaren amaieran hasi dira agintari errebantxista eta antikomunisten presiopean. Pravdak bere sinbologia komunista kendu behar izan zuen bere mantxetatik agintari errusiarren zigorrari ihes egiteko, Izvestiak borondatez egin zuena, indarrez egin behar izan zuen Pravdak. Pravdak ez zuen bere burua, bere lekua aurkitu iraileko egun asko eta asko pasatu arte. Diseinua ere bada horren lekuko lehen orrialdeak garai hartako anabasaren ispilu direlarik.

1992. urtean ordu zailak bizi izan ditu egunkari honek. Gaur egun, Greziako filokomunisten diruak lagunduta, badirudi aldatz behera ebago dela. Baina egunkaria gaur egun ez da lehen izan zena, ez da egunkari informatiboa, ez da buletin politiko bat, azken dinosaurioen prentsaren lekuko baino ez baita. Ez du errigore informatiborik, ez du errigore politikorik, ez du ezer. Oposizioaren egunkaria nahi du izan, eta Errusiako oposizioak bizi duen gaixotasun berak jota dago Pravda bera: indefinizio politikoak, eta arazo honek bere atzetik dakarren etorkizunari begiratzeko beldurrak eskulotuta dauka egunkari hau.

Izvestia irabazleekin adiskidetu zen estatu-kolpearen garaian, Pravdak ez zuen jarrera hori eduki, ezta kontrakoa ere, indefinizioan murgildu baitzen. Alderdiak ez zion ezer argi esan, ez zuen irizpiderik eman eta errakuntza hori ordaintzen ari da orain egunkaria, zeren “demokrata-irabazleek” ez baitute Pravdaz ezer entzun gura, eta “komunista-ortodoxoek” nahiago dituzte beste egunkari batzuk, hala nola Sovietskaja Rossija. Gaur egun Pravdak tiradak urritu behar izan ditu, orrialde-kopurua murriztu, langilegoa % 70 gutxitu... Mirariz bizi ote den galdetu beharko.

Bai IZVESTIA baita PRAVDA ere, bi-biek bizi izan duten egoera konkretuagatik, egunkari hibridotzat (informatzaile+iritziemaile) har ditzakegu. Sobietar Batasuna zenean egunkariak, aldizkariak eta publikazio kasik oro, Alderdi Komunista, Estatuko Organo eta Administrazioen

esku egon dira. Gauzak honela, Sobietar Batasunean “prensa sobietarra” ez zena ez zen existitzen.

IZVESTIA Sobietar Batasuneko Herri-Diputatuen Kongresuari lotuta egon da oraintsura arte. PRAVDA Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren Batzorde Zentralaren Organoa izan da orain-oraintsura arte. Bai IZVESTIAk baita PRAVDAK ere, iritzi-egunkaririk asko dute, hala ere, bi-biek, asko dute egunkari berri-emaletik. Beraz, “Iritzizko Egunkari Berriemaletzat” joko ditugu.

Sobietar Batasunak bizi izan duen egoerak bultzatuta, alegia argitalpenak Estatuaren Organigrama barruko partaide izateagatik, Estatuaren iritzi berekoak izan dira, baina era berean, albiste-iturri, bestelako biderik ez baitzegoen. Egia da, sarritan, ez dela argi egon non hasten zen iritzia eta non hasten albistea, baina horrek ere badu idiosinkrasia sobietar-errusiarretik uste baino gehiago. Editorialek eta iritizko artikuluek pisu handia eduki dute. Firmak ez dira inoiz falta izan batean zein bestean, eta sarritan firma handiak, jende ospetsuarenak erakutsi dira egunkari biotan. Baina albistek bere tokia izan du egunkari bion orrialdeetan. Berriek lehen orrialdeetako leku nabarmenak bete dituzte sarritan. Irakurleak, iritziarenaz gain, berri-egarria sarri asetu du IZVESTIA eta PRAVDAREN orrialdeetan.

Egunkari biok eguneroko prentsa informatzaile “aske” kontsolidaturik egon ez den lurralde bateko testigu dira, eta Erakunde Ofizial eta Ofizio-soen iturrietatik elikatu dira.

Informazioa eta Iritzia eskutik lotuta egon dira egunkariotan sortuz gero, Estatu berriaren sostengu izateaz gain, Pentsamendu Berri baten adierazpide zirelako. Nortasun honek bere diseinua ere baldintzatu du: iritzia eta informazioa letra-mota berberaz irakurri ahal izan dira, albistearen desarroiloa ez da kazetaritza-fakultate honetan erakusten den normatibari segitzen dion horietarikoa, editorial eta izenpetutako artikuluek ugariak izan dira, eta titularrek ez dute titular informatiboaren “ortodoxia mende-baldarra” maiz errespetatu, ezta sarrerak edo led-ek ere..

PRAVDAREN diseinu-azterketa

Gure azterketari dagokion aldian (estatu-kolpe ahaleginaren ingurukoa), PRAVDA egunkariak aldaketa garrantzitsuak bizi izan ditu diseinua-aldetik. Diseinua ez da batere iraunkorra izan bere osagai ezeinen aldetik, aitzitik, den-dena izan da aldagai, mantxetarekin berarekin hasi eta, albiste eta iritziaren banaketaz amaitu arte. Batek ez daki noiz amaitzen den aldaketa pentsatua, eta noiz hasten diseinu-anabasa.

PRAVDA egunkariak, hala ere, ez du aldaketa handirik izan bere **neurri estandarreei** dagokienez. Orrialdearen neurri orokorra 43,2 x 59,5 zentimetrokoa da eta testu inprimatuak betetzen duen tokia 39 x 52,1 zentimetrokoa. Neurri estandar hauek egunkari osoan errespetatzen dira, hots, bere sei orrialdeetan (PRAVDAK inoiz sei orrialde baino gehiago argitaratu duen arren, bere ohizko

orrialde-kopurua seikoa da 91garre-
neko uda-egun hauetan).

PRAVDA egunkariak zortzi zuta-
beko **pauta** erakusten du bere portadan
eta pauta orokor hau egunkariaren
barruko gainerako orrialdeetan erabil-
tzen den berbera da.

Ez da PRAVDA egunkaria bere
argitaralpenaren indarra **grafiko** eta
argazkietan oinarritzen duen egun-
karia, tipografia arruntak, zeharko
zaharkituak erabiltzeak ere badu bere
eragina honetan. Orokorrean hartuta,
PRAVDAk inprimitutako lehen
orrialdeetako %16,68 uzten du grafiko-
gintzaren esku; barruko orrialdeetan
%8,15. Grafiko eta argazkiaren mun-
duak PRAVDAn funtzio erabat
informatzailea dauka. Ez du egunka-
riak tarte zuririk uzten.

Letra-motei dagokioenez, egunka-
riak tipologia aberatsa erakusten du.
Joera nabarmena du orrialde berean
letra-mota joko ugari egiteko, eta
batzuetan horrela jokatzeko orrialde
nabartuegiak plazaratzera konde-
natzen du bere burua. Hala eta guztiz
ere, ulertzekoa da joera hori PRAVDA
bezalako egunkari batean, zeren
tipografia zaharkituek ez baitute
bestelako jokorako biderik uzten.
Letra-moeten uztartze-prozesua
nabarra suertatzen da ale guztietan.
Ikus dezagun banan banan zer
darabilen PRAVDak kasu bakoitzean:

Letra-moetak TESTUetan:

Seiren bat letra-moeta desberdin
darabiltza egunkariak bere orrialde-
etan, honoko hauexek:

-gazetnii svetlii
-gazetnii txornii
-erbar svetlii
-erbar poludjernii
-skolnii kursiv
-nonparel txornii
-nonparel svetlii
-grotesk

OHARRA: svetlii= argia
txornii= iluna
poludjernii=erdi iluna

Testuetan elkarren ondoan agertzen
dira letra-moeta hauek artikulua
bereizteko. Letra-familia hauek,
gehienbat, 6 eta 8ko gorputzetan
agertzen dira; gorputz bion artean
erabiliena 8a da hala ere.

Letra-moetak TITULARREetan

Aberatsago, oso, agertzen da
egunkaria titularretan testuetan baino,
bai letra-familiari begiratuta, baita
gorputz-neurriei begiratuta ere. Hona
hemen titularretan erabiltzen direnen
zerrenda:

-jubiliernii svetlii (36)
-jubiliernii strognoi (36, 42)
-grotesk strognoi (24)
-metro poludjernii(18, 24, 30)
-metro txornii (24)
-skolnii kursiv (10)
-naklon propivnoi (14)
-pravdie
-strognie
-bruskovii poludjernii (16)
-bruskvii kursiv (16)
-djurnalnii rublenii poludjernii (36)
-djurnalnii rublenii txornii (16)

OHARRAK:
 svetlii=argia
 strognoi=gogorra, sendoa
 poludjernii=erdi-beltza
 rublenii=pikatua
 metro=1928. urtean diseinatutako letra berezia
 pravdii=pravda egunkariarentzako bereziki diseinatutako letra-moeta, 1977. urtekoa.
 Parentesi arteko zenbakiak=gorputza

-grotesk (20)
 -sebastopolskii (16)
 -djurnalnii rublenii kursiv (14,16)

Letra-moetak AURETITULARRE- etan

Gutxitan erabiltzen da aurretitularrea, azpitudularrea beste, ez gehiago. Letra-moetak, bi:

-djurnalnii rublenii (16)
 -djurnalnii rublenii kursiv (14)

Letra-moetak AZPITITULARRE- etan

Egunkariak ez du azpitudularra askotan erabiltzen, banakaren bat orrialde bakoitzean, eta asko eta askotan batere ez. Letra-moetak ez dira aurreko kasuan besteko ugariak; gehienetan egunkari bakoitzean bizpahiru moeta agertzen dira, hauek hain zuzen ere:

letra-moetak DEI, LEILATILEtan

-bruskovii polujernii kursiv (16) — titularretan
 -erbar poludjernii (10) — testuetan

Titularretako letra-moeten EZKONTZA

aurre	14						14		14		14	16	16
titul	36	18	24	42	30	20	14	10	28	16	18	42	
azpit			20	24			10						
				16									

* koadroaren harremanen balioa berau bertikalki irakurrita aurkituko dugu

letra-moetak LADILLOetan

- beltza (10)
- erbar poludjernii (12)
- grotesk (14)

letra-moeten UZTARKETA

Familia, tipoa eta neurriak kontutan hartuta, egunkariak bere lehen orrialde batean 20ren bat moeta desberdin erabil ditzake:

-titulareetan:	10
-aurret.:	3
-azpit.:	3
-testuetan:	4

Egunkariak darabilen **inprimaketa-sistemak** mende honen hasierara garamatza, tipografia eta linotipia, horixe da sistema. 1991.eko estatu-kolpe ahaleginaren ostean, egunkariak oso bizimodu traketza darama, bere burua ezin sostengaturik. Jasan duen jasarpn ofiziala dela medio, eta jende askoren boikot aktiboa dela-eta, entusiastak baino ez dira geratzen egunkarian, langilegoa % 70 murriztu da 91.eko abuztutik hona. Estuatasun ekonomikoak begibistakoak dira, eta horren kausaz egunkariak minimoetan dihardu gaur egun: informazio iturri gutxirekin eta teknologia zahar-tuarekin.

Egunkariaren lehen maketa 1912. urtekoa da, ale hartako ardura Н. Г. Подетаевъ eta М. Е. Егоровъ jaunena izan zen. Gaur egun **diseinu-departmentua** dago, bertan zortzi pertsonak lan egiten dute

Крымозов jaunaren zuzendari-tzapean.

PRAVDAk oso egun seinalatuetan erabiltzen du **kolorea**, gorria gehienetan: urteberrian, emakume langilearen egunean, maiatzaren lehenean, prentsa sobietarraren egunean, iraultza boltxebikearen egunean eta Bigarren Mundu-Gerrateko garaipen egunean. 1960garren urteetako hamarkadan argazkiak koloretan sartzen ahalegindu ziren egunkarian, baina paperak ez zuen behar bezalako erantzunik eman eta utzi egin behar izan zuten saio hori. Gaur egun PRAVDA egunkari gris horietarikoa da.

Estatu-kolpearen inguruko egunkariaren diseinu-joeraren nondik norakoak argiago ikusteko azter ditzagun lehen orrialdeak eta bere barruko sekzioak.

PRAVDaren lehen orrialdearen azterketa

1.- mantxeta

Mantxeta klasiko batekin egiten dugu topo PRAVDA egunkarian. Bere historia luzean egunkariak bere logotipoari eutsi egin dio. Logotipo bera izan da bere azken 60 urteetako historia guztian lehen orrialdean presente egon dena, eta logotipoa bera izan da bere historia, batzuetan handixeago, beste batzuetan txikixeago, baina bera urte eta urtetan. Ikus V irudia, 1941. urteko Ekainaren 23ko alea da, Alemania naziak Sobietar Batasuna inbaditu zuen astelehenekoa.

Mantxetan ostera, aldaketa nabariak dauzkagu ikertzen dugun epe honetan, 1991.eko Abuztuko estatu-kolpearen

inguruko epe honetan. Mantxetaren aldaketek, jakina, egunkariak aldi honetan ezagutu dituen aldaketa editorialen lekuko dira.

Lehen azpialdi batean (1991.eko Uztailan eta Abuztuaren hasieran, ikus I irudia) mantxetak 10 x 28,5 zentimetroko espazioa betetzen du, beti ere, lehen orrialdearen goialdeko ezker aldean. Mantxetan egunkariaren izenaz batera (PRAVDA-egia), publikazioa Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren Batzorde Zentraleko Organoa dela adierazi eta erakusten da; era berean “Herri guztietako langileak, elkar zaitzte” leloa ikusgai da PRAVDA gainean; mantxetaren ezker aldean LENINen aurpegia ikusgai delarik haxe irakurtzen da: egunkaria 1912.eko Maiatzaren 5ean Leninek berak fundatu zuela. Mantxetako informazio guzti honi zera gaineratzen zaio: urteko alearen zenbakia, egunkariaren zenbaki historikoa, asteguna, data osoa eta alearen salneurria (10 kopek, kopek bat=errubloaren hamarrena).

Bigarren azpialdi batean (1991.eko Abuztuaren azken hamabostaldian gaude, estatu-kolpearen egunetan, ikus II irudia) PRAVDAK bere mantxetan berrikuntza garrantzitsua erakusten du. Honez gero ez da Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren Batzorde Zentraleko Organoa, SBAK-ren Egunkari Politiko Orokorra baino. Estatu-kolpe ahaleginaren porrotak estuasun politikoak ekarri zizkion bistan denez egunkariari. Ez da beste aldaketarik oraingoz ikusten mantxetan, baina gutxi iraungo du mantxeta honek.

Hirugarren azpialdi batean (estatu-kolpeak ez du jadanik etorkizunik, demokrata errebantxistek Alderdi Komunistaren kutsua eraman dezakeen edozeren aurka gogor dihardute, ikus mantxeta III irudian) mantxetak 08 x 24 zentimetroko espazioa betetzen du, goiko partean bai, baina titular handi baten antzerako baten azpian, titularrak haxe dio: “Hitzarmen ekonomikoa horren alde dauden guztientzat”. Mantxeta berriak LENINen aurpegia galdu du, baita Alderdi Komunistaren Manifestu nagusiaren leloa ere: “Herri guztietako langileak, elkar zaitzte” delakoa. Egunkariaren fundazioaren berri ematen duen tartearak, lekuz aldatua, lehen LENINen ondoan, orain PRAVDAn gainean, zera dio: “Egunkaria 1912. urteko Maiatzaren 5ean fundatu zen LENINen ekime- nez”, hemen ere aldaketa. Egunkariaren numerazioak eta datazioak berdin segitzen dute, ez ostera prezioak, orain 15 kopek balio baititu.

Laugarren azpialdi batean (estatu-kolpea atzean geratu da, Irailean gaude eta Sobietar Batasunak bere normaltasuna bilatu nahi du) mantxeta oso aldakorra da. Bere kokapena aldatu egiten da egunegun, batzuetan goialdeko eskuinaldean, beste batzuetan ezker aldean, zentratutik ere agertzen da inoiz. Mantxetak batzuetan bere gainean titular moduko handiak ekartzen ditu publikazioak bizi dituen estuasunen ispilu. Agintari berrien boikota eta erasoak direla medio, mantxetak berak adierazten digu egunkariak bere izaera itxuraldatu duela, eta bere burua noizbehinkari bilakatu duela. Hasiera batean larunbatetan bakarrik agertuko da diru-

-estuasunak medio, gero astean zenbait aldiz, hiru edo lau, baina ez egunero. Denborak igaro beharko du egunkariak bere martxa hartzeko, Greziako magnate filokomunista baten diru-sarrerak gauzatu arte ez du PRAVDAk bere burua altxatuko. Neurri absolutuez, mantxetak aurreko epeko neurri berberak mantenduko ditu lekuzko aldaketak egon arren. (IV. irudiak gaur egungo mantxeta erakusten du).

2.- estiloa

PRAVDA egunkariaren lehen orrialdea tradizionala da. Tradizionala da logotipoan, tradizionala mantxetan eta pautan. Lehen orrialdea ez da inolako poster erakargarria. Testu asko darabil eta oso gutxitan izan da monografikoa. PRAVDAn kasuan albiste osoak eman daitezke lehen orrialdean, baita albiste-hasierak ere. Informazio, edo iritzi, nahi den legez, asko dakar lehen orrialde honek.

Egunkariak sekzio finkoak dauzka bere lehen orrialdean, hala nola: Eguneko Albiste Nagusiak (argazki batekin joan ohi dena), Sobietar Bata-sunean gertatutako albiste laburren sekzioa, Atzerrian izandako albiste laburren atala, egunkari barruko albisteen Sumario modukoaren txokoa (zenbait aldiz leihatilatan gordeta albiste bakoitza), eta iritzizko artikuluren bat/batzuen hasiera (dei moduan). Inoiz bigarren mailako albisteen hasiera dakar lehen orrialdeak, baita txisteren bat (grafikoa eta komentarioa), eta titular modukoren bat tipografia letra handiz Egunkariari berari, Alderdi Komunistari edo Sobiet

Erakundeei dagokien aparteko gairen bati buruzkoa (Egunkarirako harpidetza-garaia hurbiltzen denean, Alderdiaren bulegoetara norbait sartu denean, Lege berriren bat Parlamentura eraman denean...)

Egunkaria erditik tolestuta (kioskoetan) edo lau zati eginda (etxeke buzoian) banatzen da. Horrek erabat baldintzatzen du lehen orrialde honetako diseinua. Ondorioz, eguneko albiste nagusia, eta albiste laburren atalak goiko erdian agertzen dira (lehena ezkerrean, besteak eskuinaldean), gainerako albiste-iritziabarrak, nolabait esatearren, behekoan. Batzuetan zati nagusi bion arteko muga barruko albisteen berri ematen duen lehilatila-deien bateria batek osotzen du.

3.- tipografia

Lehen azteraldian egunkariaren lehen orrialdean xerra-filetea eta lauki-errekua asko erabiltzen dira, errekurso tipografiko bakartzat har daitezke bi hauek egunkari honetan. PRAVDAn hiru milimetro betetzen duen kaña (marra bikoitza) erabiltzen ditu bere mantxeta lehen orrialdeko albisteetatik banatzeko, milimetro biko laukia Eguneko Albiste Nagusiak sekzioa nabarmenarazteko, milimetroko leihoak albiste nagusiaren azpi atalak nabarmenarazteko edo/eta barruan aurki daitezkeen albiste nagusien deia egiteko, eta milimetro bateko marra bikoitza lehen orrialdeko sekzio finko bat markatzeko: Hemen eta Atzerrian deitu hori. Halaber milimetro bateko edo milimetro biko fileteak erabiltzen dira albiste-atal

guztiak heuren artean banatzeko, baita albiste nagusi baten barruko azpтитuluren bat edo esaldiren bat azpimarkatzeko ere. Horrela hartuta, egunkariaren lehen orrialde honek “puzzle” moduko zerbait dirudi albiste guztiak enmarkaturik doazela. Lehen orrialde honetan egunkariak oso errekurtsio “primitiboak” darabiltza (alegia, ez dago lekuri zuriatarako, ezta trametarako ere). Lehen azteraldi honetan argazkiaren presentzia minimoa da (ikus esate baterako 1991.eko Uztailaren 18ko egunkaria)

Bigarren azteraldian, egunkariaren lehen orrialdeak joera horizontala hartzen du. Bigarren azteraldi hau estatu-kolpe ahaleginaren aldiari dagokio eta lehen orrialdea horri dagokio. Hasteko esan behar da lehen orrialdeak tonu monografikoa hartzen duela, eta diseinua horri jarraitzen zaiola. Estatu-kolpe ahalegin bitartean ediktoak dira nagusi lehen orrialdean, eta ediktuak xerra finez banatuta daude, milimetrokoak den-denak. Mantxeta gainerako testuetatik banatzeko erabili ohi diren hiru milimetroko marra bikoitzak hor daude betiko tokian, baina horixe da, hain zuzen ere, aurreko diseinutik mantenduko den bakarra, zeren lehen orrialdeak bere itxura aldatzen baitu goitik behera: Ediktuak titulu banaz eskaintzen dira bata bestearen azpian. 1991. urteko abuztuaren 20ko alean, esate baterako, zazpi eskaintzen dira, hauetarik lau egitura erabat horizontalekoak, bi karratukoak (oso laburrak biak), eta beste bat bertikalekoa, den-denak banatuta milimetroko xerraz. Lehen orriko pauta bere horretan mantentzen den arren, zutabe

zabalagoak erabiltzen dira ediktu nagusiak (horizontal horiek) nabarmenarazteko. Argazkiak erabat galdu dira.

Estatu-kolpe ahaleginak iraun zuen beste (hiru egun kontsideratzen da gehienetan), egitura horizontala errespetatzen da, hautsi egin da aurreko epealdiko puzzle itxura. Hala ere, egunak pasa ahala, PRAVDAK bere ohizko diseinura jo nahi duela ikus daiteke. Eta horrela, abuztuaren 21eko alean lehenago nagusi izan zen Eguneko Albistek deitu sekzioa agertu egiten da bere ohizko errekuadroan, barruan dauden ia informazio guztiak estatu-kolpe ahaleginari dagozkio: lau ediktu berri eta kale-istiluak. Lau argazki agertzen dira lehen orrialde honetan, lauek estatu-kolpe ahaleginarekin erlazionaturik egitura horizontal hutsa betetzen dutelarik. Lehen orrialde honetan, galdurik nonbait, bestelako berrien deiak daude: batzuk ohizko leihoaren barruan eta besteak milimetroko marra bikoitzak banatuta. Azken hauek Hemen eta Atzerrian deitu sekzioari dagozkio.

Estatu-kolpe ahaleginaren hirugarren egunean, abuztuak 22, egunkariak aurreko egunetako egitura horizontal eta estatu-kolpe ahaleginaren bezperetako patxaran murgiltzen da, normaltasuna bilatu nahi izango bailuen puzzlerantz abiatuz. Honetara, egitura horizontalak pisua galtzen du, puzzle-blokeek garrantzi handiagoa hartzen dute eta xerrak loditzen hasten dira: milimetro batekoez gain, milimetro bikoak hasten dira agertzen berriro ere.

Irailean, hirugarren azteraldian, PRAVDak erabat berrartzen du bere puzzle-egitura ohia, orain, inoiz baino puzzleago zeren beste bloke bat eransten baitzaio diseinuari: mantxeta (ez ahaztu elementu honen kokapena aldakor bilakatzen dela epe honetan: batzuetan goialdearen erdi-erdian, beste batzuetan goialdearen ezkerrean, eta bestetzutan goialdearen eskuinaldean). Aldi honetan, halaber beste aldaketa garrantzitsu bat ikusten da: xerren lodiera erdira murrizten da. Albisteak orrialdean banatzeko beste diseinu-joera bat ikusten da: Eguneko Albiste Nagusiak deitu sekzioa desagertu egiten da sekzio moduan, nahiz eta bere espazioa bere horretan mantentzen den; marra bikoitzak desagertu egiten dira, bai mantxetan baita albisteen arteetan ere; eta mantxetaren gainean egunkariak zerikusia duten albisteak agertzen dira errekuadraturik. Badirudi “pisua” kendu nahi zaiela batera mantxetari eta lehen orrialdeari.

4.- grafikogintza

4.1.- lehen azteraldian, estatu-kolpe ahaleginaren aurretik.

Bataz beste, PRAVDak bere lehen orrialdean 3 (hiru) argazki erakusten ditu, batezbesteko neurria 130 cm², inprimatutako mantxaz konparatuta: % 13,39.

4.2.- bigarren azteraldian, estatu-kolpe ahaleginaren egunetan gaude.

Batezbeste, lehen orrialdean 2,66 argazki erakusten ditu, batezbesteko

neurria 60,16 cm²., inprimatutako mantxaz konparatuta % 11,83.

4.3.- hirugarren azteraldian, estatu-kolpe ahaleginaren porrotaren osteko egunetan gaude.

Bataz-beste, lehen orrialdean 5,66 argazki erakusten dira, batezbesteko neurria 93,80 cm², inprimatutako mantxaz konparatuta % 24,81.

Datu hauen arabera, PRAVDak **birbaloratu egiten du argazkia** estatu-kolpea bizi eta gero. Izan ere, argazkiei emandako tratamendua lehen orrialdean erabat aldatu egin da 1991.eko irailaz gero, datu absolutuetan argazkiak bere presentzia bikoiztu egiten du eta estatu-kolpeaz gero.

Orrialde-kopurua eta sekzioak PRAVDAn

Aztertzen ari garen aldi honetan PRAVDA egunkariak bere orrialdeetan zehar erakutsita eta bere sekzioen batezbesteko garrantzia azpimarkatuta, dudarik gabe, bere izaera politikoari eusten dio, egunkari “serioa” izateari hain zuzen ere. Dena den, orrialde kopuruak eta sekzioen banaketak aldaketa nabaria erakusten dute hilabete laburretako historia honetan. Lehen azteraldiotan PRAVDak sei edo zortzi orrialde argitaratzen ditu, bigarreanean sei, eta hirugarrenean lau besterik ez. Hiru azteraldiotan sekzio “serioen” nagusitasuna bistakoa da.

Sekzio “serioek” egunkariaren heren bi baino gehiago bete dute lehen

azterketa bietan (%80 batezbeste), azken azterketan, estatu-kolpeaz gerokoan, erdia baino gehixeago besterik ez (% 66,66).

Estatu-kolpeak, bestalde, sekzio eta orrialde-kopuruaren berrantolaketa ekarri zuen bere ondorenean: 4 orrialdetan finkatzen da (aurreko azterketetan 6 edo 8 ziren orrialdeak). Sekzioen aldetik aldaketa nabarmenagoa da: sekzio batzuk desagertu egiten dira beste batzuei lekua egiteko. Politika eta Ekonomia, Bart, Gaur eta Bihar, Mundua eta Politika eta Erreportariaren Kluba (sekzio historikoak) desagertu egiten dira eta ondoko hauexek hartzen dute txanda: Egunari Pultsua (2. orrialdean), Nazioartekoa (3. orrialdean) eta Egunari Pultsua berriro ere (4.enean). Bigarren orrialdeko honek bere baitan biltzen du batezbeste lehenagoko Politika eta Ekonomia eta Bart, Gaur eta Bihar izeneko sekzioen gaia. Hirugarren orrialdekoak Mundua eta Politika izenekoak ordezkatzeko du. Laugarrenekoak Erreportariaren Kluba ordezkatzeko du.

IZVESTIAren diseinu azterketa

IZVESTIAren kasuan ere, aldaketa nabariak ikusten dira hilabete hauetan. Pravdari gertatutakoaren antzera, egunkari hau ere gizarte-aldaketen ispilu eta lekuko da, eta aldaketa horien lekuko da, bere aldetik, egunkariaren diseinua.

Egunkari handienen artean kokatu behar dugu IZVESTIA, Pravda bera

ere hor koka daitekeelarik. Bere **neurri estandarrik** ondoko hauexek dira: 42,3 x 59,5 zentimetro karratu, berauetarik 38,7 x 52,7 zentimetroko espazioa inprimiturik agertzen delarik. Espazio hau egunkariaren 6 edo 8 orrialdeetan mantentzen da.

Egunkari handi honek, Pravdak legez, zortzi zutabeko **pauta** erakusten du lehen orrialdean eta pauta hori berori erabiltzen da barruko orrialdeetan.

Ez da egunkari hau bere indarra **grafiko eta argazkietan** oinarritzen duenatarikoa, tipografia arruntak erabiltzeak ere badu bere eragina honetan. Orokorrean hartuta, egunkariak inprimatutako lehen orrialdeetako %11,81 uzten du grafikogintzaren esku; barruko orrialdeetan %2,31. Grafiko eta argazkiaren munduak funtzio erabat informatzailea dauka.

Egunkari honek ale bi plazaratzen ditu egunero, biak arratsalde partean, eta horrek asko markatzen du bere maketazioa. **Letra-moetetan** errazenera jo dute, eta arintasunaren izenean tipoak eta familiak gutxitzeari ekin diote. Egunkariak makineria zaharra dauka, hala ere, egoera ekonomiko hobetagoa bizi du (Pravdak baino).

Testuetan 'erbar' eta 'jubileinii' izeneko letrak erabiltzen dituzte. Batez ere 8ko gorputzean, inoiz ere 6koan. Letra-familia bi hauek beltzean, kurtsiban edo erdi-beltzean ikus daitezke.

Titulareetan letrak beti beltzean doaz, gehien erabiltzen diren familiak:

‘diputatskii’, ‘grotesk’ eta ‘tzentralnii’ dira. Neurriei begiratuta gorputzik arruntenak: 10, 13, 16, 24, 30 eta 42. **Azpitulare** eta **aurretitulare** gutxi darabil egunkariak. Gorputzak bietarako: 10, 16 eta 20.

Egunkariaren **inprimaketa-sistemak** mendearen hasierara garamatza. Honek, hala ere, ez du galarazten egunkari honetan lana arintasunez egin ahal izatea. Egunkariak ez du errotatiba inorekin konpartitu behar, ez dio agintarien boikotari aurre egin behar, publizitatean ondo dabil, eta horrek inprimaketa-sistemaren ahuleziak konpontzen laguntzen du. Estatu-kolpearen porrotaz gero, egunkariak aurrera eta aurrera egin du, eta gaur egun hiriburu errusiarreko egunkaririk garrantzitsuenetarikoa da.

Egunkariak **gehigarri** batzuk argitaratzen ditu. Ostegunetan finantza gehigarria, Financial Times egunkariarekin batera kaleratzen dena (8 orrialde egunkari ingeles-hiztun honek erabiltzen duen izokin-koloreko paperarekin). Ostiraletan astebururako gehigarria dakar (asteburuan ez dago egunkaririk), guztira hamasei orrialde dakartza. Egunkariak astean behin ‘WE-MY’ gehigarria kaleratzen du koloretan (astekari arina).

Diseinu-departamentuan zuzendari batek eta sei langilek dihardute.

Jabegoari dagokionez aldaketa nabarmena ezagutu du egunkariak estatu-kolpeaz gero: Sobietar Batasuneko Parlamentuaren argitalpena zena, putxaren gainbeheraren ostean, orain bere buruaren jabe da, eta

titularitatea IZVESTIA kolektiboarena da. Hau, dena den, Parlamentuak berak errekurrituta dago. Ikus VI irudia.

IZVESTIAren lehen orrialdearen azterketa

1.- mantxeta

Logotipoak, IZVESTIA-Albistek delako horrek bere horretan iraun du urte eta urtetan. Logotipoaren ingurukoek, mantxeta osotzen duten elementuek, ostera, aldaketa ugari izan dituzte guk ikertzen dugun aldi honi dagokionez.

Lehen azterketan (estatu-kolpearen bezperatan gaude) mantxeta 08 x 52,7 zentimetro karratuko espazio betetzen du. Mantxeta honek argi uzten du egunkariaren ildo editoriala zein den bertan agertutako sinbologiari esker. Logotipoaren goialdean “ Herri guztietako langileak, elkar zaitezte” leloa hamabost hizkuntzatan ematen da, Sobietar Batasuna osotzen zuten hamabost Errepublika Federatuetako hizkuntza ofizial guztietan alegia. Logotipoaren ezkerrean, egunkariak irabazitako hiru dominak erakusten dira: LENINen ordena, Urriko Iraultzaren ordena eta Sobietar Batasunaren ordena. Logotipoaren eskuinaldean egunkariak bere burua Sobietar Batasuneko Herri-Diputatuen Kongresuaren menpekotzat hartzen duela adierazten da, eta Sobietar Batasuna zenaren ikur ofiziala erakusten du. Mantxetak egunkaria 1917. urteko martxoaz gero argitaratzen dela dio. Mantxetak urteko numerazioa eta

numerazio historikoa erakusten ditu. Eraberean arratsaldeakaria dela dio. Data osoa eskaintzen du, eta prezioa ikusgai da mantxetaren azpialdean, eskuin-eskuinean: 25 kopek. (ikus VII irudia)

Bigarren azterketan (estatu-kolpearen egunetan gaude) Egunkariak aldaketa nabarmenak erakusten ditu. “Herri guztietako langileak, elkar zaitetzte” leloa desagertu egin da mantxetatik, hamabost hizkuntzatan desagertu ere. Irabazitako ordenen erreproduzioak desagertu egin dira, baita Sobietar Batasunaren ikur ofiziala ere. Hala ere egunkariak Sobietar Batasuneko Herri-Diputatuen Kongresuaren menpekotzat aitortzen du bere burua. Egunkaria 1917.eko martxoaz gero argitaratzen den informazioa eman egiten da orain ere; lekuz aldatuta dator hori: mantxetaren goialdean. Gainerako informazioa bere horretan mantentzen da. Mantxetak sinbologia eta informazioa galdu duela eta, espazio txikiagoa betetzen du orain: 6,5 x 28,5 zentimetro karratuko tarte goialdeko ezker aldean. Ikus VIII irudia.

Hirugarren azterketan (estatu kolpearen porrotaren ostean gaude) egunkariak berriro aldatzen du bere mantxeta. Orain ez du Sobietar Batasuneko Herri-Diputatuen Kongresuarekiko menpekotasunik aitortzen. Mantxetak diseinu berria hartuko du: 1917. urtean jaioa dela dioen informazioa eskuinaldera dator berriro ere, eta bere azpian lau puntu zehatzez markaturik, lau informazio ematen dira ordena honetan: urteko numerazioa eta numerazio historikoa, arratsaldeakaria

dela, data osoa eta prezioa. Mantxeta txikitu egiten da pixkat: 5,5 x 28,5 zentimetro karratuko espazioa betetzen du orain, goialdearen ezker aldean. Mantxeta bere horretan estabilizatzen da aldaketa bakarra prezioaren gorabeherak ekarriko dutela. Ikus IX irudia.

2.- estiloa

Egunkariaren lehen orrialdea tradizionala da. Tradizionala da logotipoan, tradizionala mantxetan eta pautan. Lehen orrialdea ez da poster erakargarria diruditen horietarikoa. Testu asko eta albiste asko dakar bere lehen orrialdeak, oso gutxitan izan da monografikoa lehen hau.

Pravdaren kasuan legez, lehen orrialdeak albiste osoak eman ditzake, baita albiste hasierak ere. Informazio, edo iritzi, asko dakar.

Egunkariak sekzio finkoak dauzka bere lehen orrialdean, hala nola: eguneko albiste nagusia, Sobietar Batasuneko eta atzerrian gertatutako albiste laburren sekzioa, txisteren bat (grafikoa eta komentarioa), eta iritzizko artikuluren bat/batzuen hasiera (dei moduan). Inoiz bigarren mailako albisteen hasiera dakar lehen orrialdeak.

Pravdari gertatzen zaion legez, egunkari honek dakartzan argazkiak ez dira kalitate handikoak izaten, tipografiak ez du eta alarde handiak egiteko aukerarik ematen.

Pravdaren kasuan legez, egunkaria erditik tolestuta (kioskoetan) edo lau zati eginda (etxeke buzoian) banatzen

da. Horrek erabat baldintzatzen du lehen orrialde honetako diseinua. Ondorioz, eguneko albiste nagusia, eta albiste laburren atalak goiko erdian agertzen dira (lehena ezkerraldean, besteak eskuinaldean), gainerako albiste-iritzi-abarrak, nolabait esatearren, behekoan. Kuriosoa da errusiarra egunkaria garraio publikoetan irakurtzen ikustea (egunkaria lau eta zortzi aldiz tolestuta dago, eta zutabeak goitik behera irakurtzen dira egunkaria tolestuz eta destolestuz hariari jarraitu ahal izateko, pertsonak eta egunkariak ahalik eta espaziorik txikiena betetzeko, dela metroan, dela autobusean, dela tranbian).

3.- tipografia

Lehen azterketan (gogoratu 1991.eko uztaila eta abuztuaren lehen hamabostaldian murgiltzen ari garela), oso egunkari klasikoarekin egiten dugu topo (ikus 1991. urteko abuztuaren leheneko alea). Errekurtso tipografikoak “klasikoak” dira, zaharrak alegia: xerrak eta errekuadroak, besterik ez, ezta argazkirik ere askotan. Milimetro bi betetzen dituen xerra bikoitz batek banatzen du mantxeta eta informazioa lehen orrialdean, beste xerratxo batek (milimetro erdia) mantxetan bertan logotipoa eta ikurrak gainerako informaziotik: data, zenbakia, salneurria...

Lehen azterketa honetan lehen orrialdeko egitura bikoitza da: orrialdearen heren batek egitura bertikala du, eta milimetro biko errekuadro batek enmarkatzen du oso-osoan. Sekzio hau finkoa da, orrialdearen ezkerralde ia osoa betetzen du eta

albiste laburren saila osotzen du, zutabe bitara doa tartean milimetro erdiko goitik beherako xerra batekin. Orrialdeko gainerako bi herenek egitura horizontala dute, bertan hiru edo lau berri eman daitezkeelarik, garrantzitsuena goian, bigarren mailakoak honen azpian, eta orrialdearen beheko aldean iritziaren tartea egon ahi da. Albisteok milimetro biko xerrek banatu ohi dute.

Dena den, azterketa honetan bertan, egunkariak, betiko tipografia eredu mantenduz, hots, xerra eta errekuadroen joko mantenduz, egitura bertikalera jo du, eta honetara, lehen orrialdeak hiru zutabe erraldoiren antza hartu ohi du (ikus horretarako 1991.eko abuztuaren 5eko alea). Kasu hauetan orrialdearen ezkerraldean bere horretan irauten ohi du albiste laburren sailak, bere milimetro biko errekuadro, espazio eta tartekariarekin. Gainerako heren biak honetara banatu dira: erdia baino gehixeago albiste nagusiarentzat, erdira heltzen ez den espazioa bigarren mailako albisteentzat. Albiste nagusiak errekuadro erdia darama (eskuin-behe), milimetro biko, eta gainerako albisteek milimetroko xerra-tarteetan. Inoiz, leiho modukorik agertu da deifuntzioa betez. Argazkirik apenas ez, izatekotan marrazkiren bat, gehienetan txiste politikoa.

Estatu-kolpe ahaleginaren aldia, egunkariak bere burua itxuraldatzen du. Deigarriena lehen orrialdean argazkiek hartzen duten protagonismoa (ikus honetarako 1991.eko abuztuaren 20 eta 21eko aleak): manifestazioak, tankeak, istiluak, agintari politikoak presente daude lehen orrialde hauetan.

Errekurtso honetaz gain, tipografiari begiratuta, aldaketa gutxi: xerrak eta errekuadroak nagusi. Albisteak banatzeko milimetro biko xerra edo errekuadroak berri garrantzitsuenen ondotik, milimetro batekoak gainera-rakoak. Salbuespen gisa, milimetrotako xerra bikoitzen errekuadro erdiak. Behin puntu dotorez markaturik, Mosku eta Kieveko albisteak destakutzen dira.

Estatu-kolpe ahaleginaren ostean, bere mantxeta eta logotipoak aldatuta, egunkariaren lehen orrialdeak blokez osaturiko puzzlearen antza hartzen du (ikus irailaren hasierako aleak). Horretaz gain, argazkia eta txiste politikoa ohiturazko zerbait izango dira konposaketa orokorrean. Errekurtso tipografikoak “betikoak”: xerrak eta errekuadroak. Albiste laburren sekzioak lehen orrialdeko eskuinaldean segitzen du, eta gainerako heren biak albiste nagusien txoko dira.

4.- grafikogintza

4.1.- lehen azterketan

Bataz beste, IZVESTIAk bere lehen orrialdean 1,66 argazki erakusten ditu, batezbesteko neurria 98,87 cm²; inprimatutako mantxaz konparatuta: % 9,10.

4.2.- bigarren azterketan

Batezbeste, lehen orrialdean 3 argazki erakusten ditu, batezbesteko neurria 153,93 cm²; inprimatutako mantxaz konparatuta % 12,23.

4.3.- hirugarren azterketan

Batezbeste, lehen orrialdean 3,33 argazki erakusten dira, batezbesteko

neurria 143,99 cm², inprimatutako mantxaz konparatuta %14,12.

Denboraz argazkien garrantzia handitzen doan zerbait dela ikusten dugu. Argazkia eta grafikogintzari garrantzi gutxi ematen dion egunkaria izan arren, argazkiak eta irudiak heuren bidea zabaltzen ari dira aztertzen ditugun hiru epe hauetan, egoera politikoak grafikogintzagaz “eskuzabalago” izatera derrigortzen du egunkaria.

Gure analisiaren hasieran egunkariak batezbeste ez zituen ezta argazki bi ere argitaratzen bere lehen orrialdean, estatu-kolpeaz geroko epe berrian bikoiztu egiten da kopuru hori. Argazkiok ere presentzia handia hartzen dute mantxan bertan gero eta espazio gehiago betez; azken epean inprimatutako espazioaren % 14,12 hartzen dute (hasierakoa baino % 5 gehiago).

Orrialde-kopurua eta sekzioak IZVESTIAN

Aزتتzen ari garen aldi honetan egunkariak, bere sekzioen batezbesteko garrantziak azpimarkatuta, izaera politikoari eusten dio, egunkari “serioarena” kontsideratzen dugun izaera horri hain zuzen ere. Dena den, orrialde-kopuruak eta sekzioen banaketak aldaketa nabariak erakusten dute hilabete laburretako historia honetan. Lehen azterketan zortzi edo sei orrialde argitaratzen dira, bigarreanean sei, eta hirugarreanean zortzi. Hiru azterketan sekzio “serioen” nagusitasuna bistakoa da.

Egunkariak erdia baino gehiago uzten die sekzio serioei, normalean hirutik bi hartzen dute seriotzat jotzen ditugun horiek. Serioen indarra galtzen denean, eta hau azpimarratu beharra dago, ez da sekzio arinek lekua hartzen dutelako, publizitatea oso pisutsua egiten delako baino, eta hartara sekziotzat hartu beharra dagoelako (batzuetan bi orrialde oso-oso hartu baititu –eta egunkaria 6 edo 8koa da–).

Pravda egunkarian gertatuaren kontrara, kasu honetan sekzioek ez dute heuren itxura aldatzen estatu-kolpearen ostean, izaera eta izen beraz segitzen dute Irailetik aurrera. Inoiz Sekzio berriren bat gaineratzen zaio egunkariari, baina egunkariak ez du bere izaera Pravdak aldatu duen moduan aldatzen; alderdi honetatik begiratuta egunkari hau Pravda baino iraunkorragoa da (egia esan estatu-kolpeak ez du zama politiko bera eduki egunkari biotan, Pravdak arrunt kalte handiagoa jaso du Alderdi Komunistaren Organo Ofiziala zenaren aldetik).

Azken hitzak

Lehenago esan legez, gehienetan gertatu ohi denaren kontrara, ez dira arrazoi ekonomikoak izan egunkari biotako diseinu berria ekarri dutenak. Politikak, estatu-kolpe ahalegin batek itxuraldatu eta eraberi baititu egunkariok; ez biak zentzu berean aldatu, baina bai biak modu ikusgarri.

Estatu-kolpe ahalegin honek ez du ondare bera utzi egunkari biotan.

Estatu-kolpearen porrota PRAVDAtik haize indartsuaren bolada baten antzera igaro da teiltatuak altxa eta etxebarruak irauli, astindu eta kale-ratuz. IZVESTIAtik, ostera, haize-bolada hori etxe barruko gelak aireratuz igaro da, kasik hautsa harrotu barik. Ondorioz PRAVDak bere historiaren unerik gordinenak bizi ditu 1992. urtean zehar. IZVESTIAk, aldiz, atea zabaldu eta musika berriak entzun nahi ditu.

PRAVDA bere burua aurkitzen ari da, bere helburuak birdefinitzen. Estatu-kolpe ahaleginaren ostean bere tirada jausten eta jausten ari da, ez du bezeroekin konektatzen eta bere aldaketak ez dira amaitu. Estatu-kolpe ahaleginaren aurreko denborekin konparatuta PRAVDak irakurle goaren % 57 galdu du: estatu-kolpe ahaleginaren egunetan PRAVDak 3.201.000 ale plaza-ratzen zituen; 1992.eko maiatzean (bederatzi hilabete berandago) 1.385.000.

IZVESTIAk ere galera garrantzitsuak bizi izan ditu, baina bere lekua aurkitzen ari dela dirudi. Tirada orokorra jaitsi egin da, ez dago dudarik % 77 gutxi gora behera jaitsi ere. Estatu-kolpearen bezperatan 4.700.000 ale kaleratzen zituen, gaur egun 1.100.000. Zenbaki absolutuetan jauste horrek izugarri handiagoa dirudien arren, galera hori erlatibizatu behar da, zeren IZVESTIAk bere informazio-eskaintza dibertsifikatu egin baitu azkenaldi honetan: asteen bi aldiz gehigarriak kaleratzen ditu (“ekonomikoa” ostegunetan Financial Times-ekin batera eta “igandekaria” osti-

raletan); horretaz gain aldizkari
“arinak” ere kioskoetaratzen ditu
astean zehar. Beraz, egunkariaren
galera, gainerako oferta horren eskutik
errekuperatzen ari da.

ИЗВЕСТИЯ -izvestia eta
ПРАВДА -pravda aldaketa politiko
garrantzitsuen lekuko aparta dira
Sobietar Batasunak 1991.eko
Abuztuan bizi izan zituenak ulertzeko.

I. Irudia: 1991/07/18ko aleak erakusten zuen mantxeta, lehen aztertepearen lekukoa



II. Irudia: 1991/08/23ko aleak erakusten zuen mantxeta, bigarren aztertepearen lekukoa.



III. Irudia: 1991/09/05, hirugarren aztertepekoa.



IV. Irudia: 1941/06/23 Sobietar Batasuna eta Alemaniaren arteko gerlaren hasiera.

Ироитариш всех стран, соединяйтесь!
Всесоюзная Коммунистическая Партия (больш.)

ПРАВДА

орган Центрального Комитета и МК ВКП(б).
№ 2360. Понедельник, 23 июня 1941 г. Тиража 15 тыс.

Выступление по радио 24 июня 1941 года Председателя Совета Народных Комиссаров Союза ССР и Народного Комиссара Иностранных Дел тов. В. М. МОЛОТОВА

ГРАЖДАНЕ И ГРАЖДАНКИ СОВЕТСКОГО СОЮЗА!

Советское правительство и его глава тов. Сталин призвали нас сделать следующее заявление.
Сейчас, в 4 часа утра, без объявления войны фашистские агрессоры напали на нашу страну, атаковали наши границы во многих местах и подвергли бойцам и сержантам нашей Советской Армии жестокие издевательства и истязания. Многие из них убиты и ранены. В ряде районов нашей страны фашистские агитаторы в артиллерийском обстреле бомбили наши города и деревни, а в некоторых местах они уже вошли в пределы нашей территории.

Эти преступные нападения на нашу страну являются продолжением и исторически законным делом освобождения нашей страны от фашистского ига. Несмотря на то, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору, фашистские агрессоры не считались с этим договором. Несмотря на то, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору, фашистские агрессоры не считались с этим договором.

Ваша страна, товарищи, была захвачена фашистскими агрессорами. Это было неслыханное и неслыханно жестокое преступление. Фашистские агрессоры не считались с тем, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору. Несмотря на то, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору, фашистские агрессоры не считались с этим договором.

Наша страна, товарищи, была захвачена фашистскими агрессорами. Это было неслыханное и неслыханно жестокое преступление. Фашистские агрессоры не считались с тем, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору. Несмотря на то, что между СССР и Германией заключены договор о ненападении и Советские Коммунисты во всей добросовестности выполняли свои обязанности по этому договору, фашистские агрессоры не считались с этим договором.

Фашистская Германия совершила разбойничье нападение на Советский Союз. Наши доблестные армия и флот и смелые соколы советской авиации нанесут сокрушительный удар агрессору.
Правительство призывает граждан и гражданок Советского Союза еще теснее сплотиться свои ряды вокруг нашей славной большевистской партии, вокруг советского правительства, вокруг нашего великого вождя—товарища Сталина.
Наше дело правое. Враг будет разбит. Победа будет за нами.



УКАЗ ПРЕЗИДИУМА ВЕРХОВНОГО СОВЕТА СССР
о мобилизации воиннообязанных по Ленинградскому, Приволжскому, Западному, Московскому, Уральскому, Сибирскому, Приволжскому, Северокавказскому и Закавказскому военным округам.
На основании статьи 49 ст. Конституции СССР и ст. 100 ст. Конституции СССР Президиум Верховного Совета СССР объявляет мобилизацию на территории военных округов: Ленинградского, Приволжского, Западнорусского, Московского, Уральского, Сибирского, Приволжского, Северокавказского и Закавказского.

УКАЗ ПРЕЗИДИУМА ВЕРХОВНОГО СОВЕТА СССР
О ВОЕННОМ ПОЛОЖЕНИИ
1. Принять постановления, в соответствии со ст. 49 ст. Конституции СССР, объявить военное положение в отношении СССР и в отношении Германии.
2. Принять постановления, в соответствии со ст. 49 ст. Конституции СССР, объявить мобилизацию на территории военных округов: Ленинградского, Приволжского, Западнорусского, Московского, Уральского, Сибирского, Приволжского, Северокавказского и Закавказского.

УКАЗ ПРЕЗИДИУМА ВЕРХОВНОГО СОВЕТА СССР
Об объявлении в отдельных районах СССР военного положения.
На основании статьи 49 ст. Конституции СССР Президиум Верховного Совета СССР объявляет военное положение в отношении отдельных районов СССР: Ленинградской области, Воронежской области, Ивановской области, Карельской области, Калининской области, Краснодарского края, Красноярской области, Ленинградской области, Московской области, Татарской области, Украинской области, Якутской области, Мурманской области, гор. Москва и др.

1. Принять постановления, в соответствии со ст. 49 ст. Конституции СССР, объявить военное положение в отношении отдельных районов СССР: Ленинградской области, Воронежской области, Ивановской области, Карельской области, Калининской области, Краснодарского края, Красноярской области, Ленинградской области, Московской области, Татарской области, Украинской области, Якутской области, Мурманской области, гор. Москва и др.

СВОДКА
Главного командования Красной Армии
на 22 VI — 1941 года.
В течение дня в боях участвовали 100 тысяч человек. Убито 10 тысяч человек. Ранено 20 тысяч человек. Взято в плен 5 тысяч человек. Погибло 10 тысяч человек.

1. Принять постановления, в соответствии со ст. 49 ст. Конституции СССР, объявить военное положение в отношении отдельных районов СССР: Ленинградской области, Воронежской области, Ивановской области, Карельской области, Калининской области, Краснодарского края, Красноярской области, Ленинградской области, Московской области, Татарской области, Украинской области, Якутской области, Мурманской области, гор. Москва и др.

Многочисленные митинги в Латвии
23 июня (ТАСС). В городе Риге в Латвии в этот день прошли многочисленные митинги в поддержку Советского Союза. Участники митингов выразили решительное сопротивление фашистским агрессорам. Митинги прошли в различных районах Риги. Участники митингов выразили решительное сопротивление фашистским агрессорам.

ФАШИЗМ БУДЕТ УНИЧОЖЕН
С наступлением беспрецедентного наступления фашистских войск на территорию Советского Союза, фашизм будет уничтожен. Советский Союз выдержит натиск фашистских агрессоров и нанесет им сокрушительный удар.

УКАЗ ПРЕЗИДИУМА ВЕРХОВНОГО СОВЕТА СССР
Об утверждении Положения о военных трибуналах в местностях, объявленных на военном положении, и в районах военных действий.
1. Утвердить Положение о военных трибуналах в местностях, объявленных на военном положении, и в районах военных действий.
2. Предусмотреть ст. 11 и 12 указанного Положения порядок рассмотрения дел военными трибуналами в местностях, объявленных на военном положении, и в районах военных действий.

1. Утвердить Положение о военных трибуналах в местностях, объявленных на военном положении, и в районах военных действий.
2. Предусмотреть ст. 11 и 12 указанного Положения порядок рассмотрения дел военными трибуналами в местностях, объявленных на военном положении, и в районах военных действий.

LEHEN AZTERTEPEKO LEHEN ORRIALDEAK

"puzzle" deitu tankerako lehen orrialdeen adibideak.



91.07.18



91.08.02

BIGARREN AZTERTEPEKO LEHEN ORRIALDEAK

"egitura horizontaleko" aleak dira hauek.



91.08.20



91.08.21



91.08.22



91.08.23

HIRUGARREN AZTERTEPEKO LEHEN ORRIALDEAK

"mantxeta dantzaria" duen hirugarren aztertepea, "puzlea" enmaketazioan.



91.09.05



91.09.09



91.09.14

V. Irudia: Izvestiaren jabego aldaketa

Учредитель: ПРЕЗИДИУМ
ВЕРХОВНОГО СОВЕТА СССР.

Главный редактор Н. ЕФИМОВ.

Редакционная коллегия:

Н. БОДНАРУК (заместитель главного редактора),
З. ГАВРИЧКИН, И. ГОЛЕМБИОВСКИЙ (первый заместитель
главного редактора), Ю. ДАНИЛИН, Г. ДЕЙНИЧЕНКО,
А. ДРУЗЕНКО (заместитель главного редактора),
И. ЕРМОЛОВИЧ, Ю. ЕФРЕМОВ (директор издательства),
В. ЗАХАРЬКО (ответственный секретарь), И. КАРПЕНКО,
Л. КОРНЕШОВ (заместитель главного редактора, главный
редактор приложения «Союз»), Р. ЛЫНЕВ, Д. МАМЛЕЕВ
(первый заместитель главного редактора), Г. МЕЛИКЯНЦ,
О. ОРЛИК, В. СЕВРУК (первый заместитель главного
редактора, главный редактор приложения «Неделя»),
З. СКОСЫРЕВ.

Продолжается подписка на газету «Известия» с доставкой с
1 сентября и последующих месяцев 1991 года.
Подписка принимается без ограничений, на любой срок, все-
отделениями связи и органами «Союзпечати».

Новый выпуск: По графику — 22.00 Сдан в печать — в 22.00.
Тираж 4.700.000 Индекс — 50050 Зак. № 2774

Ордена Трудового Красного Знамени
Газета «Известий Советов народных депутатов СССР»
и И. И. Скворцова-Степанова. Москва, Пушкинская пл., 5

91.08.21 = Parlamentuaren jabegoa adierazgarria.

Учредитель — ЖУРНАЛИСТСКИЙ
КОЛЛЕКТИВ «ИЗВЕСТИЙ».
РЕДАКЦИОННАЯ КОЛЛЕГИЯ

Продолжается подписка на газету «Известия» с доставкой с
1 сентября и последующих месяцев 1991 года.
Подписка принимается без ограничений на любой срок, все-
отделениями связи и органами «Союзпечати».

Новый выпуск. По графику — 15.00. Сдан в печать — 16.45.
Тираж 4.700.000 Индекс — 50050 Зак. № 3208

Ордена Трудового Красного Знамени
Газета «Известий Советов народных депутатов СССР»
И. Скворцова-Степанова. Москва, Пушкинская пл., 5

91.08.22 = Jabegoa kazetarien eskura igaro da.

I. Irudia: 1991.08.05eko mantxeta, lehen aztertepea.



II. Irudia: 1991.08.22ko mantxeta, lehen aldaketa (bigarren aztertepea).



VIII. Irudia: 1991.08.24ko mantxeta, hirugarren aztertepekoa.



ESTATU-KOLPEAREN AURREKO LEHEN ORRIALDEAK



91.08.01



91.08.05



91.08.03

ESTATU-KOLPE BITARTEKO LEHEN ORRIALDEAK



91.08.20



91.08.21



91.08.22

ESTATU-KOLPE OSTEKO LEHEN ORRIALDEAK

Говоря выходи
с марта 1977 года

№ 19 (2026)
Издается ежедневно
С мая 17 сентября 1977 года
№ 19 (2026)

ИЗВЕСТИЯ

СВОБОДА СТАЛА ВЫСШЕЙ ЦЕННОСТЬЮ
ПРЕЗИДЕНТ СССР ВЫРАЖАЕТ ГОРЬКОЕ КОМПРОМИССНОЕ ПО ЧЕЛОВЕЧЕСКОМУ КРИМИНАЛУ

В ТЕБЛИСИ ВОЗВОДЯТ БАРРИКАДЫ

Маршал Шапошников предлагает свою концепцию военной реформы
ПРОДОВОЛЬСТВЕННАЯ СИТУАЦИЯ СЛОЖНА, НО НЕ БЕЗНАДЕЖНА

КАКИМ ВИДИТ ЭКОНОМИЧЕСКИЙ СОЮЗ КОМАНДА ВЕРХНЕГО



91.09.10

Говоря выходи
с марта 1977 года

№ 19 (2026)
Издается ежедневно
С мая 17 сентября 1977 года
№ 19 (2026)

ИЗВЕСТИЯ

ЧРЕЗВЫЧАЙНАЯ СИТУАЦИЯ В ТАДЖИКИСТАНЕ
АЗЕРБАЙДЖАН И АРМЕНИЯ ДОГОВОРЯЮТСЯ

КАК «ЭМИГРАНТЫ» ФРЕДЯ «КРЕМЕТ»

ДОЛЫЧА И ПРОДАЖИ ЗОЛОТА В СССР

РАЗВЕДКА РАБОТАЕТ С КИТО

ЛОНДОН GOLD PRICE

К ЧИТАТЕЛЯМ

НЕПОКОЯЯ РЕЧЬ ЖОРЖА БУША





91.09.24

Говоря выходи
с марта 1977 года

№ 19 (2026)
Издается ежедневно
С мая 17 сентября 1977 года
№ 19 (2026)

ИЗВЕСТИЯ

ТЕБЛИСИ. КРОВЬ ВСЕ-ТАКИ ПРОЛИЛАСЬ
НО НАДЕЖДА ОСТАЕТСЯ: МЕЖДУ ПРЕДСТАВИТЕЛЯМИ ПРЕЗИДЕНТА И ОПОЗИЦИИ ВОЗМОЖАЮТСЯ ПЕРЕГОВОРЫ

ДИКТАТУРА В СРЕДНЕЙ АЗИИ: ТАДЖИКИСТАН, УЗБЕКИСТАН, ДАГЕСТАН — ВЕДЕТ?

Армения и Азербайджан начнут диалог без оружия

СМЛЕНА ПРОТИВ СМЛЕНА

«ВРЕМЕННОЕ ПРАВИТЕЛЬСТВО» СОХРАНИТ ЕДИННОЕ РУКОВОДСТВО АТОМНОЙ ЭНЕРГЕТИКОЙ

ДРУГАЯ КУБА




91.09.25